

Elikagaien Segurtasun arloko legedia sinplifikatzea eta eguneratzea 13/05/07

Europako Batzordeak **neurri sorta bat** hartu du, **nekazaritzako elikagaien katean ezartzen diren osasun- eta segurtasun-arauak sendotzeko.**

Elikakateari buruzko EBko legeriak **hirurogeita hamar lege-egintza** ditu, ia, bere baitan. Bada, gaur onetsitako erreforma sortak bostera ekarriko ditu, eta nekazari, abeltzain eta nekazaritzako enpresen ustiatzaileentzako (ekoizleak, eraldatzaileak eta banatzaileak) prozesu eta prozeduren burokrasia murriztuko du, euren lana errazte aldera.

Proposameneko elementu nagusiak:

Kontrol ofizialak:

- Batzordeak **onartu egin du beharrezkoa dela Estatu kideetako agintari eskudunen tresnak sendotzea, EBko legeriaren betetze maila** tokian **egiaztatzeko** (kontrol, ikuskapen eta azterlanen bidez).
- Azken aldian elikagaien inguruan sortutako iskanbilek berriz ere erakutsi dute **beharrezkoa dela legea ezartzeaz arduratzen diren agintariek jarduera eraginkorragoa gauzatzea**, kontsumitzaileak eta legeria errespetatzen duten operatzaileak babesteko elikakateko edozein puntutan arauak haustetik eratorritako arriskuen (baita ekonomikoen ere) aurrean.
- **Mikroenpresek ez dituzte** tasak ordaindu **beharko**, euren lehiakortasunean ez eragiteko. Alabaina, kontrolak igaro beharko dituzte.
- Estatu kideei eskatuko zaie euren kontrol-plan nazionaletan **iruzurraren aurkako kontrolak bete-betean gehitzea** eta egiazko disuasio-**zigor ekonomikoak** ezartzea, arauak betetzen ez diren kasuetarako.

Animalien osasuna:

- Sortak **legegintza-testu bakarria izango du animalien osasuna EBn araupetzeko**, "hobe da prebenitzea sendatzea baino" printzipioan oinarrituta.
- Helburua da **arauak hobetzea eta sistema partekatua diseinatzea, gaixotasunak hobeto atzeman eta kontrolatzeko**, eta osasunerako, elikagaietarako eta pentsuetarako segurtasun-arriskuak modu koordinatuan lantzeko.
- Halaber, EB mailako esku-hartzea eskatzen duten **gaixotasunak mailakatzea edo lehenestea** ezartzen du, eta horrek ahalbidetu egiten du arriskuan gehiago oinarritzen den planteamendua izatea eta baliabideak behar bezala erabiltzea.
- **Behar besteko malgutasuna dago animalien osasun-neurriak hainbat tamaina eta motatako establezimenduetara (ETEak, aisialdi-ustiategiak, etab.) eta tokiko egoeretara egokitzeiko**; bereziki, establezimenduen erregistro- eta baimen-betekizunei dagokienez eta animalia eta produktuak edukitzeari dagokienez.

Landareen osasuna:

- Izurri berriak EBn finkatzea saihesteko eta hazleak eta basoko sektorea babesteko, Batzordeak **egungo erregimen fitosanitarioa sendotzea** proposatu du.
- **Arreta handiagoa jarriko da arrisku handiko merkataritzan**, hirugarren herrialdeetatik datorrenean, eta barne-merkatuko landatze-materialen trazabilitatean.
- Legeriak, halaber, ezarri egiten du beharrezkoa dela **zaintza hobetzea, izurri berrien agerraldi goiztiarrak desagerraraztea eta** berrogeialdiaren menpeko izurriteen kalteak jasaten dituzten ekoizleei **konpentsazio finantzarioa ematea**.

Landare-ugalketarako materialak (haziak barne):

- Sortak **arau soil eta malguagoak ematen ditu haziak eta landare-ugalketarako gainerako materialak merkaturatzeko**, uzten eta Europako basoen produktibitatea, egokigarritasuna eta aniztasuna gordetzeko, eta merkaturatzea errazteko.
- Hainbat material egoteak eta azterketa-betekizunak hobetzeak lagundu egingo dute biodibertsitatea babesten eta ugalketa **nekazaritza iraunkorrerantz** bideratzen.
- **EBko legeriak ez du araupetzen baratze eta lorategi pribatuetan haziak erabiltzea**. Beraz, jabeek aukera


dute edozein landare-material erosten eta hazi kopuru txikiak saltzen jarraitzeko. Gainera, argitu egingo du profesionala ez den edozeinek (aisialdi gisa edo norberaren kontsumorako kultibatzen duena) aukera duela haziak beste partikular batzuekin elkartrukatzeko, proposatutako araudia ezarri gabe.

- Nolanahi ere den, Batzordearen "Hobeto legistatu" programarekin bat, **arau berriek aintzat hartzen dituzte material motak, ekoizpen-baldintzak eta enpresen tamaina**. Horrek esan nahi du antzinako aldaera tradizionalak eta material heterogeneoek erregistro-arau arin batzuk besterik ez dituztela bete behar. Kategoria horietan ez dira bete behar legeriak ezarritako proba eta bestelako betekizunak.
- Gainera, **mikroenpresen administrazio-karga murrizten da**, eta edozein material mota erregistratu gabe merkaturatu ahal da, **"merkatu-esparrua duten materialak"** gisa.
- Bestalde, oro har, **mikroenpresek ez dituzte erregistro-tasak ordaindu behar**.

Kalkulatu da sortaren indarraldia 2016an hasiko dela.

Elikagaien Segurtasunaren esparruko neurri sorta - Batzordea

(http://ec.europa.eu/dgs/health_consumer/pressroom/animal-plant-health_en.htm)



Necesario para el navegador. El navegador debe tener JavaScript habilitado.
Elika S.A. Euzko Bide 10, 48940 Leizor, Araba. Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 . berri@elika.eus
(<mailto:berri@elika.eus>)